

# Euskal Autonomia Erkidegoko arreta espezializatuko estatistika

2022. urtea

*Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 030502 estatistika-eragiketa.*

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

Osasun Saila

Departamento de Salud

**Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza**  
**Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza**

**Itzulpena:**

Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua.

**Erabilera-baimena:**

Baimenduta dago dokumentu guztia edo haren zati bat erreproduzitzea, merkataritza-erabilerarako ez den heinean eta betiere dokumentuaren aipamena egiten bada.

**Iradokitako aipamena:**

Euskal Autonomia Erkidegoko arreta espezializatuko estatistika. 2022. urtea. Vitoria-Gasteiz: Osasun Saila, Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua, 2024.

**Argitalpena: 1.a, 2024ko uztaila**

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Osasun Saila

**Internet:**

[EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRETA ESPEZIALIZATUKO ESTADISTIKA 2022. URTEA](#)

## Emitza nagusiak

2021arekin alderatuta, 2022an:

- 1.000 biztanleko larrialdi kopurua % 16 igo zen, eta ospitaleratutako larrialdi kopurua % 9,5 jaitsi zen.
- Ohe kopurua % 0,8 igo zen.
- Errotazio-indizea (paziente/ohe) % 3 igo zen.
- Erizaintzako langileen kopurua % 1 jaitsi zen; aldiz, medikuenak % 4 igo zen.
- Ebakuntza kirurgikoak % 2,3 igo ziren.
- Gipuzkoan, erditze kopurua % 9 jaitsi zen.
- Biztanleko gastua (eurotan) % 7,5 igo zen

**EAEko ohe kopurua % 0,8 igo zen 2022an, 2021arekin alderatuta.**

Ohea oinarrizko baliabidea da ospitale baten egituran; haren aprobetxamenduak neurtzen du ospitalearen efizientzia.

Arreta Espezializatuko Estatistikaren 2022ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 38 ospitalez osatutako sarea zuen (16 ospitale publiko eta 22 pribatu), eta 7.276 ohe zituen, guztira. Horietatik % 72 sektore publikoak ziren; alegia, ospitale-asistentzia gehienbat publikoa da. Ospitale moten arabera, oheen % 74 akutuen ospitaleetakoak ziren, % 7 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetakoak eta % 19 psikiatrikoetakoak.

Horrek guztiak esan nahi du 1.000 biztanleko 3,3 ohe zeudela (EAEn); Espainian, berriz, 2,96 ohe zeuden 2022an.


Hurrengo irudian erakusten da 2013-2022 seriean zer bilakaera izan duten ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruak. Ospitale publikoetako ohe kopuruak behera egin zuen 2018ra arte; 2019an eta 2020an gora egin zuen; gero, 2021ean, berriz ere behera egin zuen, eta 2022an berriz gora. Egonaldien kopurua ia % 1 gutxitu zen urtean; 2020an, nabarmen gutxitu zen: % 8,5. 2022. urtean, egonaldiak % 3 igo dira 2021arekin alderatuta.

**EAEko ospitale publikoetako oheen eta egonaldien urteko kopuruaren bilakaera**



Titulartasun pribatuko ospitaleen kasuan, seriearen bilakaeran ikusi zen ohe kopuruak behera egin zuela 2019ra arte, 2020an gora egin zuela, eta, ondoren, aurreko joerari heldu zitzaiola. Ohe kopurua % 8 jaitsi da 2022an, 2013arekin alderatuta. Egonaldiei dagokienez, 2013an baino % 11 gutxiago izan ziren.

### EAEko ospitale pribatuetako oheen eta egonaldien urteko kopuruen bilakaera




**2022an, errotazio-indizea (paziente/ohe) % 3 igo da EAEn.**

Ospitaleko jardueraren eta funtzionamenduaren bilakaera baloratzeko, oso interesgarria da denbora, bolumena eta baliabideak erlazionatzen dituzten adierazle sanitarioak erabiltzea (altak, egonaldiak eta funtzionamenduan dauden oheak). Errotazio-indizeak adierazten du ohe bat zenbat pazientek okupatzen duten denboraldi batean, eta adierazle onena da ohe-baliabidearen produktibitatea sintetizatzeke.

Egonaldi-egunen batezbestekoa oso adierazle garrantzitsua da, oheen aprobetxamendua eta ospitalean zerbitzuak emateko arintasuna neurtzea ahalbidetzen dituelako.

Ospitale publikoen eta pribatuen azken urteko (2022) batez besteko egonaldia hartzen bada kontuan, egonaldia 5,5 eta 9,4 egunekoa da, hurrenez hurren. Zentroaren titulartasunaren arabera kalkulatu badugu paziente batek batez beste zenbat egunez okupatzen duen ohe bat, emaitza hau lortzen dugu: zentro publiko bateko ohe bat, batez beste, 273 egunez egon da okupatuta urtean; aldiz, titulartasun pribatuko ospitaleen kasuan, ohe bat, batez beste, 255 egunez egon da okupatuta aztertutako azken urtean.


Hurrengo irudian ikus daiteke zer bilakaera izan duen errotazio-indizeak zentro publikoetan zein pribatuetan 2013-2022 aldirian; hurrenez hurren, % 1,4ko hazkundea eta % 15eko jaitsiera izan dute. Aztertutako azken bi urteak kontuan hartuta, ospitale publikoetan gora egin zuela erakusten du indizeak, eta pribatuetan, berriz, behera.

**Errotazio-indizearen bilakaera, titulartasunaren arabera**

**2022an, erizaintzako langileen kopurua % 1 jaitsi zen EAEn, 2021ekoarekin alderatuta.**

Pertsonal sanitarioen (mediku, erizain eta osasungintzako beste langile batzuen) kopuruak gorakako bilakaera izan zuen 2002-2022 aldian, eta, erizainen kasuan, kopuru hori bikoiztu egin da azken 21 urteetan. 2022an, 2021arekin alderatuta, erizaintzako langileen kopurua pixka bat jaitsi zen, % 1; medikuen kopurua % 3,5 igo zen, eta beste sanitario batzuen kopurua % 7 jaitsi zen aztertutako azken urtean.

**Pertsonal sanitarioaren banaketaren bilakaera EAEn**



Hurrengo irudian ikusten da gora egin dutela medikuen eta erizainen kopuruak, 2002-2022 aldian okupatutako ohe kopuruarekin alderatuta. 2020. urtean, igoera nabarmena izan zen erizainen kopuruan, okupatutako ohe kopuruarekiko. 2022an, bi adierazleek (medikuak eta erizainak) behera egin zuten okupatutako 100 oheko, aurreko urtearekin alderatuta.

### Egitura-adierazleen bilakaera EAEn





***Larrialdiak EAEn % 16 hazi ziren 2022an, COVID-19aren pandemia hasi eta hiru urtera.***

2022an, larrialdietako zerbitzuek 1.310.038 pertsona artatu behar izan zituzten EAEn (aurreko urtean baino 184.779 gehiago); horietatik, % 78 ospitale publikoetan artatu ziren. 2022an, ospitaleratutako larrialdiak % 8 murriztu ziren ospitale publikoetan, aurreko urtekoekin alderatuta; ospitale pribatuetan, berriz, jaitsiera % 15ekoa izan zen.

2022an, eta aurreko urtearekin alderatuta, ebakuntza kirurgikoak % 4 igo ziren ospitale publikoetan, eta ospitale pribatuetan % 2 jaitsi ziren.


2022an, ospitaleratzeak % 3,6 igo ziren 2021arekin alderatuta; gehienbat, Gipuzkoan igo ziren: % 4,9. Zentroaren titulartasuna kontuan hartuta, esan dezakegu ospitale publikoetan ospitaleratzeak igo egin zirela (% 6), eta titulartasun pribatuko ospitaleetan, berriz, ospitaleratze horiek % 6,4 jaitsi zirela. Ospitale mota kontuan hartuta, nabarmentzekoa da egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako ospitaleratzeak ia % 8 igo direla 2021arekin alderatuta, eta akutuen ospitaleetako ospitaleratzeak % 3.

2022an, ospitaleetan 1.958.177 egonaldi izan ziren, 2021ean baino % 3 gehiago. Egonaldien % 73 ospitale publikoetan egin ziren. Akutuen ospitale publikoetako batez besteko egonaldia 4,7 egunekoa izan zen; akutuen ospitale pribatuetakoa, berriz, 3 egunekoa. 2021arekin alderatuta, batez besteko egonaldia % 2,1 murriztu zen akutuen zentro publikoetan, eta pribatuetan % 3.

Akutuen ospitaleetan, guztira, 5.102.216 milioi kontsulta egon ziren 2022an.


Hurrengo irudian ikusten da larrialdien kopuruak gora egin duela 2013-2022 aldian, baina 2020an jaitsiera nabarmena egon zen 2019arekin alderatuta. Diru-sarrerei dagokienez, nahiko egonkor mantendu dira aldi horretan (2013-2022).

### EAEko ospitaleratzeen eta larrialdien kopuruaren bilakaera




Hurrengo irudian, mila biztanleko ospitaleratzeen eta batez besteko egonaldiaren (egunetan) arteko erlazioa ikus daiteke. Nabarmentzekoa da 2019tik 2020ra bitartean mila biztanleko ospitaleratze kopuruak behera egin ostean (2019an 162,4 izatetik 2020an 129,7 izatera igarota), 2021ean eta 2022an ospitaleratzeak areagotu egin direla (138,5 eta 143,4, hurrenez hurren). Egunetan, 2022an batez besteko egonaldia 6,2koa izan da, aurreko urteko egun kopuru bera.

### 1.000 biztanleko ospitaleratzeen eta ospitaleratze-egunen kopuruaren arteko erlazioaren bilakaera



2021arekin alderatuta, 2022an larrialdien guztizko kopurua % 16,4 igo zen; aitzitik, aztertutako azken urtean, ospitaleratutako larrialdien ehunekoa ia % 10 jaitsi zen.


### Larrialdien guztizko kopuruaren eta ospitaleratutako larrialdien arteko erlazioaren bilakaera



Hurrengo irudian, kirurgia handi anbulatorioaren (KHA) joera ikusten da, bai ospitale publikoetan, bai pribatuetan. 2013-2017 aldian, % 24,3ko igoera izan zen zentro publikoetan eta % 9,6koa pribatuetan; 2017-2018 aldian, berriz, alderantzizko joera egon zen, hau da, % 18ko jaitsiera publikoetan eta % 10ekoa pribatuetan.

Aztertutako azken urtean (2022) eta aurreko urtearekin alderatuta, ohartuko gara berriz ere gora egin duela sektore publikoan eta pribatuan: % 2,8 eta % 7,3, hurrenez hurren.

### Kirurgia handi anbulatorioko (KHA) ebakuntza kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera




Batez besteko egonaldiak honako hau neurtzen du: antolamendu-unitate batek ospitalizazio-gertaerak konpontzeko behar duen batez besteko denbora. Pazienteen ospitalizazioa islatzen du. Zerbitzuen prestazioaren eta ohe-baliabidearen erabileraren efizientzia adierazten du.

Akutuen ospitaleetako batez besteko egonaldien (egunak) 2013-2022 aldiko bilakaera kontuan hartuta, ikus daiteke ospitale publikoetako egonaldiek behera egin dutela: 2013an 4,9 egun izatetik 2022an 4,7 egun izatera igaro dira. Zentro pribatuei dagokienez, ospitalizazioa 3 eguneko izan da bai 2013an, bai 2022an.

2022an, aurreko urtearekin alderatuta, batez besteko egonaldia pixka bat murriztu da: 4,8 egunetik 4,7 egunera igaro da zentro publikoetan, eta 3,1 egunetik 3 egunera pribatuetan.

### Batez besteko egonaldiaren bilakaera akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera




**2022an, erditzeen kopurua % 9 jaitsi zen Gipuzkoan, 2021arekin alderatuta.**

Erditzeen kopuruak behera egiten jarraitzen du, eta beherakada hori sektore publikoan zein pribatuan jazo da, eta, ondorioz, ugalkortasun- eta jaiotza-tasek behera egin dute.

2022an, % 4,5 jaitsi zen erditzeen guztizko kopurua 2021arekin alderatuta. Lurralde historikoka, Bizkaian % 1,3 jaitsi zen, Araban % 4,3 eta Gipuzkoan % 9. Erditzeen % 91 ospitale publikoetan artatu ziren. Zesarea kopuruak % 0,7 egin zuen gora ehun erditzeko, 2021arekin alderatuta.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, 2013-2022 aldian 100 erditzeko zesareen indizea askoz txikiagoa izan zen ospitale publikoetan ospitale pribatuetan baino; haatik, 2022an, zentro publikoetan izandako zesarea kopurua mantendu egin zen, eta pribatuetan, berriz, handitu (23,4), 2021arekin alderatuta (21,5).

### Zesareen indizearen bilakaera ehun erditzeko, titulartasunaren arabera




2022an, nekropsia-indizea, hildako 1.000 pertsonako 27,1ekoa izan zen EAEn; hau da, 2021arekin alderatuta, % 27ko jaitsiera izan zen.

**2022an, guztizko gastua % 8 handitu zen EAEn, 2021arekin alderatuta**

2022an, 181,09 milioi euroko gastua egin zen inbertsioan. Ospitaleko gastu osoa 3.515 milioi eurokoa izan zen; horietatik % 95 ohiko gastuei zegozkien, eta % 5 inbertsioei.

Ospitaleetako jarduera EAEko BPGaren % 4,1 izan zen. Biztanle bakoitzeko gastua 1.604 euro izan zen; aurreko urtean baino % 7,5 gehiago, hain zuzen.

EAEko biztanle bakoitzeko gastua 2003an 622 eurokoa izatetik 2022an 1.604 eurokoa izatera igaro zen, hurrengo irudian ikus daitekeenez.

**Biztanleko gastuaren bilakaera EAEn**



## 1. taula. EAeko Arreta Espezializatuko zifra ekonomiko nagusien bilakaera. 2021-2022

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2021			2021			% lgoera		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	3.155.241	2.769.650	385.591	3.334.638	2.933.513	401.125	5,7	5,9	4,0
Inbertsioa	111.277	98.792	12.485	181.090	130.965	50.125	62,7	32,6	301,5
Guztizko gastua	3.266.519	2.868.443	398.076	3.515.728	3.064.478	451.250	7,6	6,8	13,4
Guztizko sarrera	3.580.023	3.220.242	359.781	3.776.592	3.414.352	362.240	5,5	6,0	0,7

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

## 2. taula. EAEko Arreta Espezializatuko zifra nagusien bilakaera. 2021-2022.

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Akutuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak
<b>Baliabideak</b>										
Oheak	2021	5.331	512	1.373	4.359	362	437	972	150	936
	2022	5.380	487	1.409	4.419	372	444	961	115	965
	% lgoera	0,92	-4,88	2,62	1,38	2,76	1,60	-1,13	-23,33	3,10
<b>Laguntza-jarduera</b>										
Sarrerak	2021	292.955	7.771	2.529	236.844	6.286	1.656	56.111	1.485	873
	2022	303.327	8.370	2.531	251.032	6.941	1.549	52.295	1.429	982
	% lgoera	3,5	7,7	0,1	6,0	10,4	-6,5	-6,8	-3,8	12,5
Egonaldiak	2021	1.303.102	141.423	455.637	1.133.438	103.498	155.604	169.664	37.925	300.033
	2022	1.333.159	143.953	481.065	1.176.317	107.232	156.244	166.842	36.721	324.821
	% lgoera	2,3	1,8	5,6	3,8	3,6	0,4	-7,6	-3,2	8,3
Altak	2021	293.692	7.772	3.023	238.120	6.265	1.678	55.572	1.507	1.345
	2022	303.387	8.371	3.148	251.030	6.941	1.549	52.357	1.430	1.599
	% lgoera	3,3	7,7	4,1	5,4	10,8	-7,7	-5,8	-5,1	18,9
Ospitale barneko kanpo-kontsultak	2021	5.024.859	59.279	806.173	4.362.801	40.788	768.116	662.058	18.491	38.057
	2022	5.102.216	58.003	617.447	4.461.911	39.052	577.363	640.305	18.951	40.084
	% lgoera	1,5	-2,2	-23,4	2,3	-4,3	-24,8	-3,3	2,5	5,3
Larrialdiak	2021	1.118.780	5.581	898	873.146	5.581	-	245.634	-	898
	2022	1.302.202	6.664	1.172	1.017.370	6.664	-	284.832	-	1.172
	% lgoera	16,4	19,4	30,5	16,5	19,4	-	16,0	-	30,5
Ebaketak	2021	271.121	-	-	192.096	-	-	79.025	-	-
	2022	277.240	-	-	200.018	-	-	77.222	-	-
	% lgoera	2,3	-	-	4,1	-	-	-2,3	-	-
Erditzeak	2021	14.233	-	-	12.701	-	-	1.532	-	-
	2022	13.588	-	-	12.328	-	-	1.260	-	-
	% lgoera	-4,5	-	-	-2,9	-	-	-17,8	-	-
<b>Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)</b>										
Guztizko gastua	2021	3.006.386	87.715	172.418	2.675.153	71.685	121.604	331.233	16.029	50.814
	2022	3.234.640	95.971	185.118	2.854.016	81.184	129.278	380.623	14.787	55.840
	% lgoera	7,6	9,4	7,4	6,7	13,3	6,3	14,9	-7,7	9,9
Gastu arruntak	2021	2.900.797	86.235	168.210	2.579.447	70.377	119.826	321.350	15.858	48.384
	2022	3.064.908	90.896	178.835	2.729.993	76.142	127.378	334.915	14.753	51.456
	% lgoera	5,7	5,4	6,3	5,8	8,2	6,3	4,2	-7,0	6,3
Inbertsioa	2021	105.590	1.480	4.208	95.706	1.309	1.777	9.883	171	2.430
	2022	169.732	5.075	6.283	124.024	5.042	1.899	45.708	33	4.384
	% lgoera	60,7	242,9	49,3	29,6	285,2	6,9	362,5	-80,7	80,4
<b>Adierazleak</b>										
Betetze-indizea (%)	2021	67,0	75,7	90,9	71,2	78,3	97,6	47,8	69,3	87,8
	2022	67,9	81,0	93,5	72,9	79,0	96,4	44,7	87,5	92,2
	% lgoera	1,3	7,0	2,9	2,4	0,9	-1,2	-6,5	26,3	5,0
Batez besteko egonaldia (egunak)	2021	4,4	18,2	150,7	4,8	16,5	92,7	3,1	25,2	223,1
	2022	4,4	17,2	152,8	4,7	15,4	100,9	3,0	25,7	203,1
	% lgoera	0,0	-5,5	1,4	-2,1	-6,7	8,8	-3,2	2,0	-9,0
Txandakatze-indizea (paz./ohe)	2021	55,1	15,2	2,2	54,6	17,3	3,8	57,2	10,0	1,4
	2022	56,4	17,2	2,2	56,8	18,7	3,5	54,5	12,4	1,7
	% lgoera	2,4	13,2	0,0	4,0	8,1	-7,9	-4,7	24,0	21,4
Hilkortasun gordinaren indizea (%)	2021	3,1	28,2	1,2	3,3	28,2	0,2	2,2	28,4	-2,3
	2022	3,2	26,8	2,1	3,4	27,5	0,5	2,3	23,7	3,7
	% lgoera	3,2	-5,0	75,0	3,0	-2,5	150,0	4,5	-16,5	60,9
Nekropsia-indizea (%)	2021	45,6	-	-	52,6	-	-	0,8	-	-
	2022	33,5	-	-	38,3	-	-	0,0	-	-
	% lgoera	-26,5	-	-	-27,2	-	-	-100,0	-	-
Zesarea-indizea (%)	2021	14,7	-	-	13,9	-	-	21,5	-	-
	2022	14,8	-	-	13,9	-	-	23,4	-	-
	% lgoera	0,7	-	-	0,0	-	-	8,8	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2021	50,0	50,0	5,1	56,3	61,8	1,5	23,4	-	12,0
	2022	50,8	57,5	5,3	56,3	69,3	0,3	24,5	-	13,2
	% lgoera	1,6	15,0	3,9	0,0	12,1	-80,0	4,7	-	10,0
Ospitaleratzeak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2021	12,3	64,3	42,3	14,3	64,3	-	5,1	-	42,3
	2022	11,1	70,0	29,0	13,0	70,0	-	4,3	-	29,0
	% lgoera	-9,8	8,9	-31,4	-9,1	8,9	-	-15,7	-	-31,4

Iturria: Arreta Espezializatuko Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

**Ohar metodologikoak:**

- 2013az geroztik, ospitale publikoetako informazioa Osakidetzako antolakuntza nagusiko informazio-zerbitzuetatik etortzen da. Lehen, informazio hori ospitaleetatik zuzenean jasotzen zen.
- Sektore publikoko jarduera ekonomikoari dagokionez, 2013az geroztik ordura arte kontuan hartzen ez ziren bi partida sartzen hasi ziren: amortizazioan dagoen gastuari buruzkoa (sarreraren kontuan duen kontrapartidarekin) eta Osakidetzaren inbertsio estrategikoei buruzkoa.
- 2015etik aurrera, Osakidetzaren Eibarko ospitale berriaren inbertsioa sartu zen.
- Giza baliabideei, baliabide fisikoei, arreta-jarduerari eta jarduera ekonomikoari buruz ospitale-estatistikan txertatutako datuak arreta espezializatuari dagozkio.
- 2017tik aurrera, Alfredo Espinosa ospitalea- Urduliz (Osakidetza) sartu da estatistikan.
- 2017tik aurrera, 704. kontuan —Estatuko Osasun Sistemako erakunde edo organismoekin itundutakoak (Osakidetza)—, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko jarduera sartzen da.
- 2019an Quirón Donostia eguneko ospitalearen jarduera sartu zen.
- 2020an hasi zen EAEn COVID-19aren pandemia.
- 2022ko Arreta Espezializatuko Estatistika erreformatzea, Osasun Ministerioaren barne diren zentro sanitarioen estatistika.
- 2022an, Igurco Araba zentroaren jarduera kanpoan utzi da.